

Zirtotik...puntura!

Esaldi errimatuak sortzen aritu gara. Orain, **puntu** bat sortzen ikasiko dugu.




Zer da **puntua**?

Puntua **esaldi errimatua** eta **kantatua** da. Kantatu egiten denez, esaldi horrek zaindu egin behar du **neurria**: hitzak **doinuan egoki** sartu daitezen, ez luze eta ez motz.

Puntu hau abestuko dugu, ezagutzen ditugun doinuetan. Ea neurrian zein datozkion ongi!

Maritxu nora zoaz
eder galant **hori**

**Neurri
berdina al da?**

	 Doinua		
1			
2			
3			
4			

**Puntua esaldi errimatua eta kantatua da.
Beraz, esaldiaren azken hitza zer izango da?**

ERRIMA

POTO


OINA

HITZ POLISEMIKOA

Kontuz... Hankaluzea!

Hitzak **doinutik irteten badira, HANKALUZZEA** egingo dugu.

Maritxu nora arraio zoaz
eder galant **hori**



Kontuz... Hankamotza!

Hitzek **doinua ez badute betetzen, HANKAMOTZZA** egingo dugu.

Maritxuuuuu
eder galant **hori**

Lau puntu hauek neurrian akats bana dute. Abestu ditzagun eta esan zer den bakoitza, hankaluzea ala hankamotza.

Iturrian zer edan ote
duzu gaur **Bartolo**

Ardotxo txuria
bolo-bolo

Gehitxo edanda orain duzu
mingaina **potolo**

Ohera sartu eta
egingo dut **lo**